

## HEZKUNTZA KONTSEILARIAREN AGURRA

Pedro Migel ETXENIKE

Lehendakari Jauna, Agintariok, Euskaltzainok, Euskalariok!  
Agur, agur t'erdi!

Hizkuntzaren ikertzaile zaretenok, agian, ez duzue maiteko politikarion mintzaldirik. Baina ezin uka daiteke politikak euskararengan izan duen eragina eta erasana. Arrazoi politikoak alde batera utzi ezkerok nola uler daiteke euskaraz hitzegitea galerazi izana? Gure Euskal Herri honetan dugun politikagatik ez ditugu izan hau bezalako ihardunaldiak. Gurean ez dugu biderik eta aukerarik izan beharrezkoak zitzaizkigun ikerketak egiteko. Unibertsitate bat behar eta Bourdeaux-koa izan zen aurrena euskara eskainitako katedra eratu zuena. Ezin aipa gabe utzi haulki hartako buru izan genuen Rene Lafon jauna eta hemen gure artean dugun bere jarraitzailea, ihardunaldiotan lehen txostena irakurri diguna. Geroztik Salamancak sortu zuen katedra. Mitxelena jauna egin zelarik bere arduradun. Goi mailako irakaskintza eta ikerketarako aukera beraz etxean ez baino hauzoan izan ditugu.

Orain dela gutxi zabaldu zaizkio atearak gure Herrian euskal-filologia ikasi nahi duenari. Egoera hain txarrean euskararen ikas-irakasten eta ikertzen saiatu zareten guziok, gure herriaren esker-ona eta txalo beroa merezi dituzue. Unibertsitate mailan egoera aldatzen hasi da, baina hasi da bakarrik. Hastapenak beti dire nekezak eta horregatik da eskertzekoa Salamancan bezalako tradizio handiko Unibertsitatean katedra utzirik hemen bertako haserako lanari heldu diotenen jokabidea. Eskerrik asko, Mitxelena jauna!

Baldintza politikoak aldatzen doaz eta aspaldian estalirik izan ditugun ametsak egi bihurtzen hasteko garaia etorri zaiguneko esperantza ba dugu. Jakina orain bertako arazoak, begiratu batera erabat politikoak dirudite, nola lortu hainbat urtez ukatu baina jatorriz zor zaizkigun eskubideak euskaraz ikasi eta irakasteko? Baina, inoiz ba da ta, orain gaude politikaren sailean gabiltzanok ikerlarien premian eta premi gorrian gainera. Euskara ez da aurrera aterako politikoak eman ditzakegun lege berriek hau edo hori esaten

duTelako bakarrik. Guzi hori zaigu derrigorrezkoa. Baina ezinbestekoa zaio euskarari, gorengo ikerketa maila lortzea egiteko duguna buruz eta tajuz egin dezagun. Guk politikariok bideak jarri behar ditugu, noski Euskal Unibertsitatean eta gainerako Institutoetan euskararen ikasteko eta ikertzeko aukerak sor daitezten. Baina benetako ikertzaileak falta ba zaizkigu gureak egin du.

Guretzako ez da euskera, lehenengo ikertzeko zera bat, guretzat euskera gure hizkuntza da, beste hizkuntza bezalakoa noski, baino gurea eta bere etorkizuna gure etorkizunaren zutabeetakoa. Baina gaur hemen gertatzen zaiguna besterik da: zutabetzat nahi duguna bera dugu zutabe eske. Eta eske hau, hein handi bateran zuei eta zuen eskutik sortuko diren euskararen ikertzaile guziei egiten dizuegu. Ikertzeak ba dirudi gure orain bertako lana berandutu lezakeela. Baina, egiz eta benetan, ikerketarik egiten ez duen herria bera de berandutzen dana.

Izan ere, zertarako dugu euskaraz bizitzeko eta euskaldun izateko borondate hutsa, hori nola lortu ez ba dakigu?

\* \* \*

We want our country to be the centre and catalyst of basque studies but this, indeed, does not mean we are close to contributions from other countries. On the contrary we are looking forward to learning from all of you coming from abroad. The value of international meetings such as this one does not lie only on the ideas they produce. There is more to it.

These meetings affect the society as a whole by creating an atmosphere of creativity which penetrates every cultural frontier, they determine the standards by which university activities and research work are judged. They are therefore an incentive for improvement.

Improvement which is specially necessary to us in this moment in which we are beginning to be in charge of our institutions.

I don't want to hide, why should I?, besides it is an open truth that perhaps the university we have inherited is not as good as we wished it to be. I certainly believe as Mitxelena himself wrote in the foreword to his «History of Basque literature» that «The truth, as far as one can grasp it, is always more healthy, although no more pleasant than all the excuses researched to comfort the self-pride».

The only way to improve is realizing where we are and where we should be going to and we can learn a lot from meetings such as this one. Most of you come from some of the world best Universities and meetings like this one can contribute a great deal to establish what is and what should be an University. Which are the requirements that an University professor should fulfill, or the level of achievements in research necessary to get a permanent position.

I don't want to finish without telling you that is both a privilege and an honour to welcome and thank you for attending' this meeting. A privilege because many others would have done so better than me. An honour because

very few deserve it more than you do. You have been and are working on our language and of course this is of the greatest importance to our nation, to the Basque Nation, because our Government doesn't conceive a Basque Country without the Basque Language. Euskadi can't be without Euskera. There is still another significant factor, one that is seldom referred to, but is absolutely vital: The excellent work you have done doesn't belong to you or even to the Basque Country, it belongs to all because as our President the Lendakari Garaikoetxea himself said in his acceptance speech in this very room «What is good doesn't belong to anybody it belongs to us all» and the world should be and I am sure some day it will be grateful. We the Basques certainly are. Thank you very much indeed!